

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5040

EBAZPENA, 2023ko urriaren 24koa, Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren zuzendariarena, zeinaren bidez hutsik uzten baita Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren edo Administrazio Zientziaren inguruko azterketak eta ikerketak egiteko laguntzen deialdia.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren zuzendariaren 2023ko maiatzaren 3ko Ebazpenaren bitartez, merezimendu-lehiaketaren deialdia egin zen Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren edo Administrazio Zientziaren inguruko azterketak eta ikerketak egiteko laguntzak emateko.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, aurkeztutako eskabideak baloratu zituen Balorazio Batzordeak, eta horietako batek ere ez zuen lortu deialdiaren ebazpenaren 6. oinarrian ezarritako beharrezko puntuazioa.

Hori dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Hutsik uztea Administrazio Publikoaren, Zuzenbide Publikoaren edo Administrazio Zientziaren inguruko azterketak eta ikerketak egiteko laguntzen deialdia.

Bigarren artikulua.– Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren zuzendariaren ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari; beraz, berorren aurka, gora jotzeko errekurtsua jar daiteke, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtso hori ebazpen hau eman duen organoari aurkez dakioko edo, bestela, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtsua aurkezten denetik hiru hilabete igarotzen badira ebazpen espresurik eman gabe, ezetsizat hartu beharko da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 24a.

Administrazio Publikoaren Euskal Institutuaren zuzendaria,
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA.